



## Katedralaren ahotsa



BOB EDME

### Hamabi urteko isiltasunaren ondotik Baionako katedralako ezkilak berriz hasi dira jotzen

DOZENA bat urtez isilik egon ondoan, Baionako katedralak ahotsa berreskuratu du, 2000. urteko lehen segundotetan. Lau ezkilak 'Do', 'Mi', 'Sol' eta 'La' notak jotzen dituzte aldizka, oren laurden guziz. «Baionari airostasun bat ematen» diote, Eñaut Irola katedralako apezaren iduriko. Airostasuna goiztiarrentzat eta traba gaupasazaleentzat. Asteburuetako goizetan lo egitea galaraz-

ten dute ezkila horiek, auzoko biztanle batek EGUNKARIARI aitortu dionez.

Ezkilak gauz isiltzen dira, halarre. Irola erretoreak onartu zuen jende anitzek gauz ez dutela soinurik nahi. Lehen angelusa goizeko zortziak eta erdietan iratzartzen da eta azken dilin-dalana arratseko zazpiak eta erdietan entzuten. Ezkila-gidariak melodia baten ezartzea proposatu du. Oraino ez

dute erabaki zein melodia hautatu, baina ondoko denboretan, XX. mende hasieran bezala, katedralak kantatu behar luke. «Mende hastapenean erloju bat bazen, eta hamar notarekin aire berezia jotzen zuen» oroitarazi zigun Irolak, dokumentu zaharretan oinarrituz.

Ezkila ttipi sorta batekin musikatuko dute, menturaz, hegoaldeko dorrea. Iparraldeko dorreko lau ezkilak, berriz, ez dira arin-arin horietarik. Arinenak 500 kilogramo ditu eta handienak 2.300. 'Santa Maria' izeneko azken horrek oren guziz jotzen du, 'Do'

notarekin. Baionako Herriko Etxeak bosgarren ezkila bat eskainiko dio dorre horri, bost tonaz gorakoa. Heldu den abenduaren 31n entzunen da lehen aldikotz.

Karga handia jasan behar du dorre horrek, eta duela hamabi urte ohartu ziren ezkilak atxikitzeke egitura metalikoa ahultzen hasia zela. Burdina alde askotatik herdoiltzen hasia zen, eta arriskurik ez hartzeko, ezkilak geldiarazi zituzten. Arkitektoak iparraldeko dorreko harrien ahultasunaz ohartu ziren, dorrearen azkartze eta garbitze lanak abiatu zituztelarik. Haizeak eta euriak harriak uste baino gehiago higituak zituzten. Katedralak *lifting* baten behar presatua zuen, dorrearen egonkortasuna gero eta zalan-tzazkoago bilakatua baitzen.

Harri anitz aldatu dute bi urtez, pareta aski azkarra izan dadin ezkilak atxikitzeko. Burdinazko egituraren ordezko zurezko bat ezarri dute. Egitura berriaren indarra azpimarratu zigun Irolak. Frantziako Monumentu Historikoen batasunak pagatu lanak bukatu, katedralako bazterrak bisita daitezke orain. Aurtengo maiatzean irekiko dizkiote ateak jendeari. Ezkila ikusgarriak ikusi eta dorre horietako ikusmira harrigarria goza daiteke uda denboran.

2000. urtearen hasierarekin batera, Baionako katedralako ezkilak berriz jotzen hasi dira, hamabi urtez isilik egon ondoren.

**Eneko Bidegain**  
 BAIONA